

## ESPEZIEEN TXARTELAK: LANDAREDIA

### Izei gorria (*Picea abies*, (L.))



#### Identifikazioa

Garaieran 50 m edo gehiago dituen zuhaitza eta 300 urte lortu ditzake altuera handiko lekuetan.

**Azikulak:** 1,5 eta 2,5 cm bitartekoak dira, lau alde dituzte eta adarraren inguruan kokatuta daude.

**Loreak:** Zuhaitz hermafrodita da (atal ar eta emeak ale berdinean daude). Lore arrak 2,5 cm-takoak eta gorritik horira igarotzen dira. Lore emeak handiagoak dira, 2-4 cm bitartean, eta gorriak.

**Fruituak:** Zuhaitz hermafrodita da (atal ar eta emeak ale berdinean daude). Lore arrak 2,5 cm-takoak eta gorritik horira igarotzen dira. Lore emeak handiagoak dira, 2-4 cm bitartean, tenteak eta gorriak. Erretxidunadun zuhaitzetan pinaburuak hitza erabiltzen da fruituak izendatzeko. Izei gorriaren pinaburuak luzezkak eta zintzilikatuak dira, 10-15 cm luzerakoak. Behin heltzen direnean zuhaitzetik erortzen dira apurtu gabe. Kontuz ibili, eta ez nahastu izei zuriarekin, honen pinaburuak gorantz kokatzen dira.

#### Fenologia

Udaberrian azikula berde-argiak sortzen ditu adar punta bakoitzean.

Bere kimaldia eta loraldia berantiarak dira, beraz udaberriko izoztaldiak ongi eutsi ditzake.



Kimaldia



Loraketa



Hostoketa

## Kontutan izan beharrekoa

Ale gazteak eguberriko zuhaitz gisa erabiltzen dira. Bere adina jakiteko bertiziloak (gune berdinetik sortzen diren adar taldea, koroa moduan) kontatzea nahikoa da eta datu honi, hiru (adarrak sortzea kostatzen zaion denbora da) gehitu behar zaio.

## Alertze europearra (*Larix decidua*, (Mill.))



### Identifikazioa

25 m-ko altuerara iritsi daitekeen zuhaitza eta 500 urte bizi daitekeena goi mendietan. Udazkenean hostoak galtzen dituen koniferoa da (zuhaitz hostoerorkorra da).

**Azikulak:** 1,5-2,5 cm bitartekoak dira, eta 40 taldeko balatan biltzen dira. kolore berde bizikoak dira, malguak eta ez ziztatzaileak.

**Loreak:** Zuhaitz hermafrodita (lore emeak eta arrak zuhaitz berdinean kokatzen dira) da. Lore arrak (gerbatan taldekatuak) txikiak eta horiak dira, adar txiki eta azikula gabekoetan kokatuta. Lore emeak 2cm-tako gerba luzeetan kokatuta daude, tente daude eta kolore gorri bizikoak dira. Azikuladun adar motzetan agertzen dira.

**Fruituak:** Erretxidunadun zuhaitzetan fruitua pinaburu deritzo. Alertzearen pinaburuak 2-3 cm bitartekoak dira eta tente daude. Hasieran kolore berde bizikoak izaki arre bilakatzen dira gerora. Zenbait urte irauten dute adarretan.

### Fenologia

Bere kimaldia eta loraldia goiztiarrak dira udaberrian (martxoa inguruan) Udazkenean, laritzaren hostoak horitzen dira, erori baino hilabete bat lehenago.



**Kimaldia**



**Hostaldia**



**Loraketa (arra)**



**Hostoen koloratze hasiera**



**Hostoen koloratze ertaina**

### **Kontutan izan beharrekoa**

Alertzearen egurra kalitate onekoa da, ustelgaitz propietate garrantzitsuekin (ez da usteltzen). Mendiko lurraldeetan zurginek maiz erabiltzen dute, oholezko teilatuetan oso erabilgarria da (100 urte iraun dezakete).

## Urkia (Betula pendula, (Roth.))



### Identifikazioa

20-25 m bitarteko garaiera lortu dezake eta 100 urteko bizitza. Itxuraz malgua eta arina dirudi. Gaztetan errez hazten da, beraz espezie kolonizatzaile bezala ezagutzen da.

**Hostoak:** Txandakako hostoak, triangeluarrak, ertza irregularki horztuna eta ilegabeak. Adar gazteak gorriskarreak dira, malguak, disdiratsuak eta ilegabeak. Guruin erretxidunadun arrez hornituak.

**Loreak:** Gerba arrak adasken puntatik zintzilik daude eta 10 cm-tako luzera dute heltzekoan. Gerba emeak, txikiagoak dira, 3 cm luzerakoak eta tente daude.

**Fruituak:** Fruituak samarak dira (txikiak hegal handiekin) eta zuhaitzetik zintzilikatzen diren gerbatan topatzen dira (pinaburuen antzekoak).

### Fenologia

Kimaldia otsailaren bukaeratik maiatzera gertatzen da, eta loraldia baino lehen izaten da, azken hau apiriletik maiatzera da. Espezie hau polinizatua da eta hazia haizearen bitartez zabaltzen da.



**Kimaldia**



**Hostaldia**



**Loraketa (arra)**



**Hostoen koloratze hasiera**



**Hostoen koloratze ertaina**

### **Kontutan izan beharrekoa**

Garai batean, urkiaren adarrak erratzak egiteko erabiltzen ziren. Enborarren izerdia gorputzarentzat propietate garbitzaileak ditu.

Beste urkia (*Betula pubescens*, (Ehrh.)) hostoen ertzetan hortz sinpleak dituzte, nahiko antzekoak eta azpikaldea ileduna. Adar gazteenak iledunak baina guruinik gabe. Adarrak tenteak dira.

## **Lizar arrunta (*Fraxinus excelsior*, (L.))**



### **Identifikazioa**

20-40 m bitarteko garaiera lortu dezakeen zuhaitza da. 150-200 urte bizi daiteke gutxi gora behera.

**Hostoak:** Aurkakoak eta konposatuak dira, hauetan 7-15 foliolo aurki daiteke. Foliolo bakoitza luzangalantzeolatua eta ertzetan horzduna. Begiak beltzak eta borobilak. Bukaerako begia, zurtoin bakoitzaren bukaeran kokatuta, piramide-formakoa eta beltza da.

**Loreak:** Adarren ertzetan kokatzen dira sortetan. Lore arrak esfera-formakoa eta beltzaska da. Lore emeak luzeskak eta morexkak dira. Bi sexuak dituzten loreak era badira.

**Fruituak:** Samarak mordo taldeetan biltzen dira eta zintzilik daude.

## Fenologia

Espezie honen loraldia Kimaldia baino lehen gertatzen da, martxoaren erdialdean. Udaberrian zuhaitz berantiarrenetarikoa da. Udazkenean, hostoak ez dute kolorez aldatzen baina oso azkar erortzen dira.



Loraketa



Kimaldia



Hostaldia

## Kontutan izan beharrekoa

Lizarren zura oso malgua da eta kolpeen kontrako hauskaitza. Propietate mekaniko onak dituenenez, askotan eskiak egiteko erabiltzen da.

## Pinu gorria/Lergorria (*Pinus sylvestris*, (L.))



Mireille Mouas IDF © CNPF

### Identifikazioa

Zuhaitz garaia da, 40 m-ko altuera har dezakeena. Mendialdean 200 eta 500 urte bitarte bizia daiteke. Bere hostaila berde-urdin eta zuria bitartekoa da.

**Azikulak:** Bikoteka taldekatzen dira, oso motzak dira eta lodiak, 4-8 cm luzerakoak eta zertxobait okerrak.

**Loreak:** Zuhaitz hermafrodita da (banako berdina ditu lore ar eta emeak). Lore arrak kimuen oinarrietan dauden gerbetan taldekatzen dira. Luzera 3-6 cm-takoa eta horitik arrosara igarotzen dira.

Lore emeak, kimuen ertzeetan kokatzen dira, 2-4 cm neurtzen dute, borobilak dira eta berdetik gorrirantz igarotzen dira.

**Fruituak:** Erretxidunadun zuhaitzen fruituari pinaburu deritzo. Lergorriaren pinaburuak dira, 2-6 cm-takoak, konikoak eta puntadunak bukaerako bi ertzeetan. Pedunkulu txikia du eta zintzilik daude. behin heltzen direnean osorik erortzen dira zuhaitzetik.

## Fenologia

Udaberrian, apirilaren bukaeratik, berde argiak diren azikula berriak adra bakoitzaren ertzean hazten dira. lergorriaren loraketa maiatzatik ekainera bitartean gertatzen da, horreal ekiditen dituzte udaberriko izozteak. Pinaburuak urtebete behar dute heltzeko.



Mireille Mouas IDF © CNPF

**Kimaldia**



Mireille Mouas IDF © CNPF

**Loraketa (arra)**



Mireille Mouas IDF © CNPF

**Hostaldia**

## Izei arrunta (*Abies alba*, (Mill.))



Yves Brûlé © CNPF

### Identifikazioa

Garaiera altuko zuhaitza da , 50 m-tako altuera lor dezakeena eta 300 urte bizi daiteke. Bere berde iluneko hostaila iraunkorra da.

**Azikulak:** Azikulak nahiko luzeak dira, 1,5-3 cm bitartekoak, ez dute ziztatzen eta alderdi bat laua dute. Gainaldetik berde ilunak eta azpikaldetik bi lerro zuri dituzte. Orrazi bat bezala, bi lerrotan kokatzen dira adarraren gainean.

Azikulak arrasto borobil bat uzten dute adarrean, txertatze gunean.

**Loreak:** Zuhaitz hermafrodita da (ale arra eta emea banako berdinean agertzen dira). Lore arrak gerbetan multzokatuak daude kimuen oinarrietan, borobilak dira, berde-horiskak hasieran eta gorrixkak gero.

Lore emeak, kimuen ertzetan, tente eta bakarrik agertzen dira.

**Fruituak:** Erretxidunadun zuhaitzen fruituari pinaburu esaten zaio. Izeien pinaburuak tente daude, luzeak dira, 10-15 cm bitartekoak. erretxina dute eta ezkata txikiak dituzte. behin fruituak heltzean pinaburua zatitzen da zuhaitzen gainera. Horregatik askotan, lurrean ezkata zaharrak eta sinpleak topa daitezke.

## Fenologia

Udaberrian, maiatzaren hilabetean barnean, berde argi kolorekoak adar bakoitzaren ertzean jaiotzen dira. Kimaldia eta loraketa pixkat lehehnago hasten dira, maiatzaren hasieran.

Pinaburtuak iraila luze eta urrian heltzen dira.



Yves Brûlé © CNPF

**Kimaldia**



Yves Brûlé © CNPF

**Loraketa (arra)**



Yves Brûlé © CNPF

**Hostaldia**

## Pagoa (*Fagus sylvatica*, (L.))



Philippe Gaudry CRPF RA © CNPF

### Identifikazioa

Zuhaitz gorpuztua, 40 m-tako altuera lor dezake eta 150-300 urte bitarte bizi daiteke. Egitura zuzena du eta azal leuna. Enborraren kolore hauskara edo zuriskaka zein identifikazioan laguntzen duen.

**Hostoak:** Hostoak adarretan txandakatzen dira. Hostoak obatuak dira, zorrotza eta ile zetakarrak hornituak ertzetan.

**Loreak:** Lore arrak pedunkulo luzeetan zintzilik multzokatzen dira, adar gazteen oinarrietan. Lore emeak binaka kokatzen dira pendunkulo motzetan, kapsula berde batean.

**Fruituak:** Pagoaren fruituak pagotxak dira, ileak dituen zurezko karlo batean gordeta daude, 3 edo 4 aleko taldeetan.

### Fenologia

Udaberrian, apirilaren bukaeratik maiatzaren hasiera arte, hosto berriak adarretako begietatik sortzen dira. Loraketa ondoren hasten da, maiatza aurrera egiten duen heinean. Fruituak urrian heltzen dira.



Sylvain Gaudin © CNPF

**Kimaldia**



Mireille Mouas IDF © CNPF

**Hostaldia**



Mireille Mouas IDF © CNPF

**Loraketa (arra)**

### Kontutan izan beharrekoa

Kontuz ibili xarma eta zumarrekin, hauen hostoen ertza zerratua da eta ez ziliaduna pagoaren kasuan bezala.

## Otsalizarra (*Sorbus aucuparia*, (L.))



### Identifikazioa

Zuhaitz honek 10-20 bitarteko altuera lor dezake. Askotan adaburua ez da trinkoa, hala ere irekia izaten da. 100 urte bizi daiteke.

**Hostoak:** Hostoak txandakatuak eta konposatuak dira, 9-15 foliolo edukiz, hauen ertza hortz finez osatutak, pezioloren ondoan daudenak ezik. Udaberrian begiak ilez beteta daude (gurbean ez bezala).

**Loreak:** Txikiak, zuriak eta oso usaintsuak, korinbo terminaletan kokatzen dira.

**Fruituak:** Fruitua pomoa da, baia baten itzurakoa, ia biribilduak eta gorriak. Txori ugari hauek elikatzen dira (birigarroak, zozoak, belatxingak...) hazien sakabanaketan lagunduz.

### Fenologia

Kimaldia martxoaren bukaeratik maiatza arte gertatzen da. Loraketa maiatzatik ekainera izaten da.

Udazkenean hostoak horiak edo gorri kolorea hartzen dute.



**Kimaldia**



**Hostaldia**



**Loraketa**



**Hostoen koloratze hasiera**



**Hostoen koloratze ertaina**

### **Kontutan izan beharrekoa**

Ez da nahastu behar gurbearekin, honek udare hori txiki batzuk sortzen ditu baia gorrien ordeztan.

## Hurritza (*Corylus avellana*, (L.))



### Identifikazioa

2-4 m bitarteko altuera lor dezakeen zuhaiska edo zuhaitz txikia. 20-30 urte tartea bizi daiteke. Jeneralean oinetik hasita adarkatzen dira, diametro txikiko, zuzen eta tente agertzen diren kimuak (andui berdinetik ateratzen diren zurtoin multzoa) deritzen direnak.

**Hostoak:** Txandakatuak, borobilak, horzdunak eta puntan bukatzen dutenak. begiak txikiak dira, eserikoak eta ezkata berde-arrez estalita.

**Loreak:** Lore arrak gerba horitan taldekatzen dira, 2-8 cm bitartekoak, mordotan multzokatzen dira. Lore emeak ernamuin esferiko txikiak eratzen dituzte, muturrean ile gorri motzak dituztenak: estiloak.

**Fruituak:** Urrak dira, abuztua eta irailean heltzen direnak.

### Fenologia

Loraketa oso goiztiarra da. Urtearen arabera, baina urtarrilaren hasieran hasi daiteke. Gerba arrak dira lehenengoak eta polena sakabanatzen dute. Kimaldia ondoren gertatzen da, otsaila eta martxoaren artean.



**Loraketa (arra)**



**Kimaldia**



**Hostaldia**

# Lila (*Syringa vulgaris*, (L.))



## Identifikazioa

2-4 m bitarteko altuera lor dezakeen zuhaiska da. Ekialdeko Europakoa jatorriz, aspaldi etxekotu zen. Ez da baso-espezia, hirietan edo etxe inguruetan topa daiteke.

**Hostoak:** Txandaka, zabalak eta puntadunak.

**Loreak:** Lau petalo dituzte eta panikula dentsuetan taldekatzen dira. Loreak zuriak edo moreak dira eta oso usaindunak.

**Fruituak:** kapsula obalatua da, horia eta gogorra.

## Fenologia

Kimaldia otsailaren bukaeratik apirila arte gertatzen da, eta loraketa baino lehen izaten da. Azken hau, apirila eta maiatza bitartean gertatzen da.



**Kimaldia**



**Hostaldia**



**Loraketa (arra)**

## Kontutan izan beharrekoa

Pierre Belonek topatu zuen Konstantinoplako baratzetan 1548 urte inguruan, eta 1600 urtean Frantzia sartu zuen.

## Sanjose-lore (*Primula veris*, (L.))



### Identifikazioa

Landare bizikorra da, 10-40 cm bitartekoa, negua iraun dezake bere sustraiei esker. Mendian topa daiteke, larretan edo ezpondetan, 2.000 m altuera arte.

**Hostoak:** Zurtoinaren oinean erroseta bat eratzen dute. Obalatuak eta nahiko luzeak dira. Hostoaren azpikaldea ilaunduna.

**Loreak:** Kolore hori bizia dute eta iduneko batean bukatzen duten hodi formakoak dira. Hodiaren ertzean laranja koloreko bost orban deigarri dituzte. *Primula elatior* espeziearekin ez da nahastu behar, hau lorearen ertzean eraztun laranja bat du orbanen ordez. Gainera hone loreak azufre-hori kolorekoak dira eta ez dute usainik, sanjose-lorearenak berriz oso usaintsuak

dira.

### Fenologia

Loraketa martxotika maiatza arte gertatzen da.



**Loraketa**

### Kontutan izan beharrekoa

Landare sendagarri eta jangarria da.

## Eztul-belarra (*Tussilago farfara*, (L.))



### Identifikazioa

Landare bizikorra da (zenbait urte bizi daitekeena). Neguan errizoma deritzon lurrazpiko zurtoin bati esker iraun dezake. Udaberrian lurretik zurtoin berri bat sortzen da eta landarea loratzen da. Europa osoan topa daiteke 2.500 mko altuera arte. Mugitutako lekuetan komuna da (hartxingadi, ezponda, bide...).

**Hostoak:** Bihotz formakoak dira, berdeak goikaldean eta ile zuri edo hauskaraz beteta azpikaldean.

**Zurtoina:** 10-30 cm bitarteko garaiera, algodoi antzeko ilez estalita eta berde-gorrixka diren ezkatekin.

**Loreak:** kapitulu (lore txikien taldea eta oso trinkoa, lore bakarra dirudi), tente eta bakartia. Loreak horiak dira, hodi itxurakoak (hodi bat sortzen dute) eta ligulatuak (mihi oso luze batekin) kanpoaldean.

### Fenologia

Loraketa otsaila eta apirila bitartean gertatzen da. Elurra urtzen denean, loratzen den lehenengo landaretarikoa da. Loreak hostoak baino lehen sortzen dira.



### Loraketa

### Kontutan hartu beharrekoa

Tussis hitz latinoak eztula esan nahi du, eta landare honek dituen sendatzeko ahalmenari dagokio. Bularreko landarea deritzo, arnas-hodiekiko lotutako gaixotasunak arintzen laguntzen du, hala nola, birrikak, bronkioak eta laringea.